AZKOITIA
Udala

| **Azkoitia BHIko ikasleek abestutako koplak** | **Alkateak abestutako koplak** |
| --- | --- |
| Kaixo alkate egun on zuri<br>institutotik gu  gatoz<br>herri polit hau hobetu nahian<br>gure_eskaerak badatoz<br><br>Gauza txiki bat eska nahi dugu<br>Azkoitiko festen baitan<br>Andramaxetan nesken babesak<br>hobea behar luke izan<br><br>Skatepark on bat eska nahi nuke<br>herrixka eder honentzat<br>bai gazteentzat,baita haurrentzat<br>bai eta zale denentzat<br><br>Zinegotzi_eder eta jatorrak<br>guretzat langileenak<br>zuen ideiak apartak dira<br>herritarrentzat onenak<br><br>Kaixo alkate agurgarria<br>zer moduz udaletxean<br>zure lana bikaina izan da<br>jarraitu_honela lanean | Beste behin ere ongi etorri<br>Santa Ageda bezperan<br>gogotsu geunden zuen koplen zain<br>Azkoitiko Udalean<br><br>Eskaera ta / proposamenak<br>ditugu guk adi entzun<br>nahiko genuke / elkarlanean<br>guzti guztiei erantzun.<br><br>Azkoitiarron / ongizatea<br>bermatzea nahi badugu;<br>neska ta mutil / zuen guztion<br>laguntza beharko dugu.<br><br>Guk gogoa ta / esperientzia<br>gaztetasuna zuena;<br>indarrak batuz / lortu daiteke<br>herriarentzat onena.<br><br>Ohitura zahar / bezain polita<br>dezute zuek mantentzen;<br>eskerrik asko / eta jarraitu<br>horrela denok alaitzen. |